



ERANSKINA

2026ko DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

LEHENDAKARITZA

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 6.1 artikuluan ezartzen duenez, dirulaguntzen jarduera plan estrategiko baten bidez planifikatu beharko da aldez aurretik. Plan horretan zehaztu behar da, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betez, zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epetan lortu behar diren, zenbateko kostuak aurreikusten diren, zer finantzaketa-iturri dituzten eta, dirulaguntzen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, planaren helburuarekin erlazionatutako ekintzak eta adierazleak zein diren.

Plan estrategikoak programatikoak izango dira, eta haien edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Lau urteko indarraldia izango dute, salbu eta egiten dituzten jarduketan izaeragatik, epe luzeagoa behar denean. Inguruabar hori behar bezala arrazoitu beharko da dokumentuan bertan.

Koordinazio eta Gizarte-komunikazioko idazkari nagusiaren 2024ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez, Lehendakaritzaren 2024-2027 Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoa onartu zen.

2024-2027 aldirako Lehendakaritzaren Dirulaguntzen Lau urteko plan Estrategiko horretan txertatuta daude Euskal Autonomia Erkidegoko 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 21/2023 Legean jasotako aurreikuspenak. Lau urteko plan horrek barne hartzen dituen hurrengo hiru urteetako bakoitzerako, hau da, 2025erako, 2026rako eta 2027rako, urte bakoitzeko Aurrekontu Legea onartu ondoren, urte bakoitzean onartzen den Dirulaguntzen Lau urteko Plan Estrategikoa erantsi beharko da 2024-2027rako Dirulaguntzen Plan Estrategiko horretan.

Lehendakaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak esleitutako arloetan garatzen du bere jarduera.

Lehendakariaren azaroaren 26ko 388/2024 Dekretuaren bidez onartutako egitura organiko eta funtzionalean ezarritakoaren arabera, Lehendakaritza hiru idazkaritza nagusi hauetan egituratzen da: Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen Idazkaritza Nagusia; Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia; eta Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren Idazkaritza Nagusia. Hiru idazkaritza nagusi horietaz gain, Euskadi Berriaren komisionatua ere Lehendakaritzaren baitan ezarrita dago.

Ondorio horietarako, hemen 2026ko ekitaldirako Lehendakaritzaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa jorratzen da; lehenik eta behin, adierazi behar da plana programatikoa dela, izaera bereko beste planak bezala; beraz, bere edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen,



eta bere eraginkortasuna abian jartzen diren dirulaguntza-ildoek baldintzatzen dute, kontuan hartuta, besteak beste, urte bakoitzean dagoen aurrekontuak eskaintzen dituen aukerak.

Kontuan hartu behar da, plangintzaren ikuspegitik, Lehendakaritzari esleitutako jardueraremetuetan, esparrua honako hauek osatzen dutela: XIII. legegintzaldirako 2024-2028 Gobernu Programak, 2030 Agendaren Euskal Lehetasunen Programaren baitan kokatzen den 2021-2024 Ekintza Planak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiak, Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Legeak eta eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren 2025-2026ko bi urtez behingo Planak.

Plan honen barruan sartu dira Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkaritza nagusira atxikita dagoen eLankidetzeta- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren dirulaguntza programak eta Koordinazioaren Proiektu Estrategikoen idazkaritza nagusira atxikita dagoen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoaren dirulaguntza programak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.artikuluaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legeak jasotzen duenez, Eusko Legebiltzarrak helburu jakin baterako berariaz onartutako dirulaguntza izendunak plangintza honetatik kanpo geratzen dira; horretaz gain, dirulaguntza teknikaren bidez, hainbat ekimeni ekiteko baliabideak daude. Diru-baliabide ekonomiko horiekin Lehendakaritzaren 2026ko ekitaldirako Dirulaguntzen Urteko Plana egin da, zeinak aukera ematen baitu dirulaguntza ildo horiek abian jartzeko.

Abenduaren 23ko 7/2025 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, diru-laguntza izendunekin batera –horiek ez dira plangintza honen xede, Eusko Legebiltzarrak helburu jakin baterako berariaz onartu zituelako–, diru-laguntzen teknikaren bidez hainbat ekimeni heltzeko baliabideak izatea aurreikusten du. Baliabide ekonomiko horiekin, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako 2026ko ekitaldirako Diru-laguntzen Urteko Plana egin da, diru-laguntzen ildo guztiak abian jartzeko aukera ematen duena.



KANPO HARREMANEN ETA EUSKADI GLOBALAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

1.- KANPO HARREMANEN ETA EUSKADI GLOBALAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK (Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusiari atxikitako zuzenbide pribatuko eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziar erakunde publikoaren dirulaguntzen programazioa barne hartzen du)

1.1.- BEKAK
KANPO HARREMANEN ETA EUSKADI GLOBALAREN BEKAK: EUROPAKO GAIEN BEKAK / KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEAREN BEKAK / KANPO HARREMANEN ETA ORGANISMO MULTILATERALEN BEKAK
<p>Europako Gaiak AURREKONTUA: 26 01 1311 22 451 19/3301; 2026: 4. kapitulua: 160.000 €. Konpromiso kreditua 2027: 80.000 € Kanpoan den Euskal Komunitatea AURREKONTUA: 26 01 1311 23 451 19/3303; 2026: 4. kapitulua: 100.000 €. Konpromiso kreditua 2027: 50.000 € Kanpo Harremanak eta Organismo Multilateralak AURREKONTUA: 26 01 1311 21 451 19/3309; 2026: 4. kapitulua: 230.000 €. Konpromiso kreditua 2027: 115.000 €</p>
<p>Araua: Ebazpena, 2026-2027 aldirako nazioarteko harremanen eremuan gazteak prestatzeko beketarako deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen dituena.</p> <p>Helburua: Gazteak nazioarteko harremanen arloan prestatzea eta erakartzea, ikuspegi integral eta disziplina anitzeko batetik.</p> <p>Jarduera: Beren ibilbide profesionala esparru horretan garatzeko ahalmena duten gazteei nazioarteko prestakuntza ematea.</p> <p>Adierazlea: beka kopurua: 19</p> <p>Prozedura: Norgehiagoka-prozedura</p> <p>Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia</p> <p>Helburu duten sektorea: Unibertsitate-titulazioa izanik, 27 urte baino gutxiago edukitzea eta bi baldintza hauetako bat betetzea: edo EAEn bititzea edo aitortutako euskal etxe bati atxikita egotea.</p>



1.2.- KANPOKO EUSKAL KOMUNITATEAREN KIDEENTZAKO PREMIA LARRIKO DIRULAGUNTZAK

AURREKONTUA: 26 01 1311 23 451 19/3317, 4. kapitulua; 2026: 212.000 € / FINANTZAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Ebazpena, 2026rako Kanpoko Euskal Komunitatearen kideentzako premia larriko dirulaguntzen deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen dituen.

Helburua: Kanpoan den euskal komunitatea sendotzea.

Jarduera: Kanpoan den euskal komunitateko kideei laguntzea.

Adierazlea: Egoera larrian dauden familia-unitateentzako laguntzak ematea (laguntza kopurua: 100).

Prozedura: Norgehiagoka-prozedura.

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza.

Helburu duten sektorea: Euskal gizataldeak.

1.3.- EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK (Inbertsioak)

AURREKONTUA: 26 01 1311 23 753 26/0691; 7. kapitulua; 2026: 47.500 €; Konpromiso-kreditua 2027: 142.500 €; FINANTZAZIOA: % 100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Ebazpena, 2026rako euskal etxeei eta euskal etxeen federazioei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin eta oinarri oinarri arautzaileak ezartzen dituen.

Helburua: Kanpoan den euskal komunitatea indartzea

Jarduera: Kanpoan den euskal komunitatea sendotzea euskal etxeen bidez

Adierazlea: Euskal etxeek euskal errealitatea hedatzeko mekanismo gisa duten zeregina indartzeko laguntzak (laguntza kopurua: 10)

Prozedura: Norgehiagoka-prozedura

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza

Helburu duten sektorea: Euskal gizataldeak

1.4.- EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK (Jarduerak eta Funtzionamendua)

AURREKONTUA: 26 01 1311 23 452 26/0691; 4. kapitulua; 2026: 227.500 €; Konpromiso-kreditua 2027: 682.500 € / FINANTZAZIOA: % 100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Ebazpena, 2026rako Euskal Etxeei eta Euskal Etxeen Federazioei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen dituen.

Helburua: Kanpoan den euskal komunitatea indartzea.

Jarduera: Kanpoan den euskal komunitatea sendotzea euskal etxeen bidez.

Adierazlea: Euskal etxeak murgilduta dauden gizarteetan jarduerak sustatzeko laguntza kopurua: 300.

Prozedura: Norgehiagoka-prozedura.



Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza.

Helburu duten sektorea: Euskal gizataldeak.

1.5.- BIRA KULTURALAK PROGRAMA

AURREKONTUA: 26 01 1311 23 452 25/0660; 4. kapitulua; 2026: 70.000 € / FINANTZAZIOA: % 100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Ebazpena, 2026rako Birak Kulturalak Programaren deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen dituena.

Helburua: EAEko komunitateak indartzen laguntzea, haien barne-kohesioa eta elkarre-ekin eraginkortasuna bultzatuz; EAEko komunitateen eta Euskadiren arteko loturak kontserbatzea eta indartzea; EAEko komunitateen ezagutza proiektatzea, EAEko kultura zabaltzeko, bultzatzeko eta garatzeko jarduerak sustatuz eta EAEko komunitateak finkatuta dauden herriekiko kultura-harremanak bultzatzea.

Jarduera: Pertsona juridiko edo indibidualentzako prestazio ekonomikoak, hartzaileek programatutako eta euskal etxeekin, federazioekin edo euskal etxeen konfederazioekin adostutako biretan kultura-zerbitzuak ematea.

Adierazlea: Aukeratutako proiektu kopurua: 7

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkaritza nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza.

Helburu duten sektorea: Euskadiko kultura-sektoreko pertsona fisikoak edo juridikoak.

1.6.- KANPOKO BAZKIDE ESTRATEGIKOEN SAREKO ESKUALDEEKIN LANKIDETZA TEKNIKOKO PROIEKTUENTZAKO DIRULAGUNTZAK (EUROPAKO ESPARRUA)

AURREKONTUA: 26 01.1311.22.452.22/0376; 2026: 50.000 €; Konpromiso-kreditua 2027: 50.000 € / FINANTZAZIOA %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Ebazpena, Korsika, Flandria, Gales, Euskal Hirigune Elkargoa eta Akitaniako Eskualde Berria Europako eskualde estrategikoetako pertsona juridikoekin gauzatzeko alde biko jarduketa-eta lankidetzako proiektuak finantzatzeko 2026ko laguntzen deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen dituena.

Helburua: Euskal interesak sustatzea

Jarduera: Aliantza estrategikoak garatzea eta finkatzea; eta, horretarako, eskualde estrategikoetako erakundeekin alde biko lankidetzako proiektuak finantzatzea, besteak beste, honako arlo hauetan: merkataritzan; inbertsioetan eta negozio-aukeretan; I+G+b-n; politika industrialean; politika fiskalean; mugikortasunean eta garraioan; lan-merkatuan eta politika ekonomikokoan; ingurumenean eta energian; nekazaritzan eta elikaduran; osasunean; hezkuntzan eta lanbide-heziketan; kulturaren; turismoan; eta poliziarekiko lankidetzan.

Adierazlea: Lagundutako proiektu kopurua: 10

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia.



Helburu duen sektorea: Egoitza EAEn duten erakunde juridiko pribatuak, kanpoko eskualde estrategikoetako erakundeekin egiten diren alde biko jarduketa-eta lankidetzak-proiektuak dituztenak.

1.7.- EUROPAKO HEDAPEN PROIEKTUENTZAKO DIRULAGUNTZAK

AURREKONTUA: 26.01.1311.22.450.25/0615 2026; 150.000 € /FINANTZAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Ebazpena, 2026rako Europako informazio-proiektuetarako oinarriak ezarri eta laguntzetarako deialdia egiten dituen.

Helburua: Euskal herritarren artean Europar Batasuneko errealitatearen alderdi desberdinak zabaltzea, Euskadiri dagokionez.

Ekintza: Euskal herritarrei Europar Batasunak nazioarteko ordena berrian jokatzeko duen paperaren eta erronkei emandako erantzunen berri ematea: agertoki geopolitiko eta ekonomiko berria, Zuzenbide-Estatuaren sustapena, maila anitzeko gobernantza eta eskualdeen zeregina, Europaren defentsarako eta segurtasunerako aro berria, Merkatu Bakarra, berrindustrializazio berria, Makroeskualde Atlantikoa, EBren zabalkuntza eta migrazio-politikak.

Adierazlea: Finantzatu daitezkeen proiektuen kopurua: 15

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia

Zein sektoreri zuzentzen zaion: Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten honako erakunde hauek izan daitezke onuradunak: DBH, Batxilergo, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateetako ikastetxe publiko eta pribatuak; Irabazi-asmorik gabeko persona juridiko pribatuak, elkarteak, sindikatuak eta erakunde profesionalak barne, eta Komunikabideak.

1.8.- KANPOKO BAZKIDE ESTRATEGIKOEN SAREKO ESKUALDEEKIN LANKIDETZA TEKNIKOKO PROIEKTUENTZAKO DIRULAGUNTZAK (EUROPAKOA EZ DEN ESPARRUA)

AURREKONTUA: 26 01.131121452 22/0376/; 4. kapitulua; 2026: 80.000 €; konpromiso-kreditua 2027: 80.000 € / FINANTZAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Ebazpena, Europatik kanpoko Quebec, Cundinamarca, Querétaro eta Santiagoko Eskualde Metropolitarrak eskualde estrategikoetan 2026-2027rako pertsona juridikoekin egingo diren lankidetzak teknikoak finantzatzeko oinarriak ezarri eta laguntzetarako deialdia egiten duena.

Helburua: Euskal interesak sustatzea.

Jarduera: Aliantza estrategikoak garatzea eta finkatzea, eta, horretarako, eskualde estrategikoetako erakundeekin alde biko lankidetzak-proiektuak finantzatzea, besteak beste, honako arlo hauetan: merkataritzan; inbertsioetan eta negozio-aukeretan; I+G+b-n; politika industrialean; politika fiskalean; mugikortasunean eta garraioan; lan-merkatuan eta politika ekonomikokoan; ingurumenean eta energian; nekazaritzan eta elikaduran; osasunean; hezkuntzan eta lanbide-heziketan; kulturaren; turismoan; eta polizierekiko lankidetzan. Deialdi batean edo gehiagotan gauzatu ahal izango da.

Adierazlea: Lagundutako proiektu kopurua: 10

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia.



Helburu duen sektorea: Egoitza EAEn duten eta kanpoko eskualde estrategikoetako erakundeekin egiten diren alde biko jarduketa- eta lankidetzaproiektuak dituzten erakunde juridiko pribatuak.



eLANKIDETZA, LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA

HELBURU ESTRATEGIKOA: Krisi humanitarioei erantzutea	
1. DIRULAGUNTZA ILDOA: Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko estrategien modalitatea	
ERAKUNDEA: eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia	
PARTIDA: 4-452-26/08	
ZUZKIDURA	3.200.000,00 €
Helburu dituen sektoreak	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
Emakida-prozedurak	Lehia bidezko norgehiagoka-araubideko deialdia da. eLankidetza- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez bideratuko da. Ebazpen horretan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztuko dira: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordaintzeko epeak; g) justifikatzeko modua.
EKINTZA	Ekintza Humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzen deialdia kudeatzea, ekintza humanitarioko estrategien modalitatean
Adierazleak	
- Eskatutako ekintza humanitarioen estrategietako laguntza kopurua	8
- Emandako ekintza-humanitarioen estrategietako laguntza kopurua	4
- Emandako estrategiak kokatuta dauden herrialdeak	4
- Emandako ekintza humanitarioko estrategietatik, Afrikan gauzatzen den kopurua	1
- Modalitate honetako laguntzen onuradunak	100.000
- Emandako estrategiak inplementatzen dituzten tokiko bazkideak	8



HELBURU ESTRATEGIKOA: Krisi humanitarioei erantzutea	
2. DIRULAGUNTZA ILDOA: Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko proiektuen modalitatean	
ERAKUNDEA: eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia	
PARTIDA: 4-452-26/08	
ZENBATEKOA	2.300.000,00 €
Helburu dituen sektoreak	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
Emakida-prozedurak	Ondoz ondoko norgehiagoka-araubideko deialdia da. eLankidetzeta- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez bideratuko da. Ebazpen horretan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztuko dira: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordaintzeko epeak; g) justifikatzeko modua.
EKINTZA	Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzen deialdia kudeatzea, ekintza humanitarioko proiektuen modalitatean
Adierazleak:	
- Eskatutako ekintza humanitarioen proiektuetako laguntza kopurua	20
- Emandako ekintza-humanitarioen proiektuetako laguntza kopurua	12
- Emandako proiektuak kokatuta dauden herrialdeak	9
- Emandako ekintza humanitarioko proiektuetatik, Afrikara bideratutako funtsak	1.200.000,00 €
- Modalitate honetako laguntzen onuradunak	70.000
- Baimendutako gehieneko eskabide kopurua esleitu zaien erakunde eskatzaileak	12
- Emandako proiektuak implementatzen dituzten tokiko bazkideak	16



HELBURU ESTRATEGIKOA: Gizarte-eraldaketa	
3. DIRULAGUNTZA ILDOA: Garapenerako lankidetzaproiektuetarako laguntzak	
ERAKUNDEA: eLankidetzaproiektuetarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia	
PARTIDA: 4-452-26/08	
ZUZKIDURA	32.000.000,00 €
Helburu dituen sektoreak	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
Emakida-prozedurak	Lehia bidezko norgehiagoka-araubideko deialdia da. eLankidetzaproiektuetarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez bideratuko da. Agindu horretan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztuko dira: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordaintzeko epeak; g) justifikatzeko modua.
EKINTZA	Garapenerako lankidetzaproiektuetarako laguntzen deialdia kudeatzea, hiru kapituluetan
Adierazleak:	
- Eskatutako garapenerako lankidetzaproiektuetako laguntza kopurua (PRO-K1).	120
- Emandako garapenerako lankidetzaproiektuetako laguntza kopurua (PRO-K1).	53
- Eskatutako garapen produktiboko proiektuetako laguntza kopurua (PRO-K2)	7
- Emandako garapen produktiboko proiektuetako laguntza kopurua (PRO-K2)	3
- PRO-K1 eta PRO K2n emandako proiektuak kokatuta dauden herrialdeak	21
- Emandako garapenerako eta garapen produktiboko proiektuetatik Saharaz hegoaldeko Afrikara bideratutako funtsak	8.000.000,00 €
- Eskatutako Gizarte eraldaketarako Hezkuntzako laguntza kopurua (PRO-K3)	45



- Emandako Gizarte eraldaketarako Hezkuntzako laguntza kopurua (PRO-K3)	21
- Onartutako proiektuen artean, "Emakumeen ahalduntzea" sektorean kokatutako proiektu kopurua.	14
- Onartutako proiektuen artean, "Defendatzaileak babesteko" sektorean kokatutako proiektu kopurua	12
- Deialdi osoan gutxienez laguntza bat jaso duten erakunde eskatzaileak.	39
- Baimendutako gehieneko eskabide kopurua esleitu zaien erakunde eskatzaileak	1

HELBURU ESTRATEGIKOA: Gizarte-eraldaketa	
4. DIRULAGUNTZA ILDOA: Garapenerako lankidetzeta-proiektuetarako laguntzak	
ERAKUNDEA: eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia	
PARTIDA: 4-452-26/08	
ZENBATEKOA	1.890.000,00 €
Helburu dituen sektoreak	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
Emakida-prozedurak	Lehia bidezko norgehiagoka-araubideko deialdia da. eLankidetzeta- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez bideratuko da. Agindu horretan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztuko dira: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordaintzeko epeak; g) justifikatzeko modua.
EKINTZA	Garapenerako lankidetzeta-programetarako laguntzen deialdia kudeatzea
Adierazleak:	
- Eskatutako programak identifikatzeko faserako laguntza kopurua	5
- Emandako programak identifikatzeko faserako laguntza kopurua	3
- Emandako identifikatzeko faseak kokatzen diren herrialdeak	6
	30.000,00 €



- Emandako identifikatzeko faseetatik, Afrikara bideratutako funtsak	4
- Eskatutako programen exekuzioaren faserako laguntza kopurua	2
- Emandako programen exekuzioaren faserako laguntza kopurua	4
- Emandako exekuzioaren faseak kokatzen diren herrialdeak	0,00 €
- Emandako exekuzioaren faseetatik, Afrikara bideratutako funtsak	

HELBURU ESTRATEGIKOA: Eragileak indartzea	
5. DIRULAGUNTZA ILDOA: Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko prozesuak sustatzeko lankidetzarako erakundeentzako laguntzak	
ERAKUNDEA: eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia	
PARTIDA: 4-452-26/08	
ZUZKIDURA	341.000, 00 €
Helburu dituen sektoreak	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
Emakida-prozedurak	Lehia bidezko norgehiagoka-araubideko deialdia da. eLankidetzeta- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez bideratuko da. Ebazpen horretan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztuko dira: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordaintzeko epeak; g) justifikatzeko modua.
EKINTZA	Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetzeta-erakundeei zuzendutako laguntza-deialdia kudeatzea
Adierazleak:	
- Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko eskatutako laguntza kopurua	11
- Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko emandako laguntza kopurua	10



HELBURU ESTRATEGIKOA: Eragileak indartzea	
6. DIRULAGUNTZA ILDOA: Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak	
ERAKUNDEA: eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia	
PARTIDA: 4-452-26/08	
ZUZKIDURA	100.000,00 €
Helburu dituen sektoreak	Pertsona fisikoak
Emakida-prozedurak	Lehia bidezko norgehiagoka-araubideko deialdia da eLankidetzeta- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez bideratuko da. Ebazpen horretan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztuko dira: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordaintzeko epeak; g) justifikatzeko modua.
EKINTZA	Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko beken deialdia kudeatzea
Adierazleak:	
- Eskatutako espezializazio-eta prestakuntza-beken kopurua	60
- Espezializazio-eta prestakuntza-beken onuradunak	4
- Espezialitate kopurua	4

HELBURU ESTRATEGIKOA: Sentsibilizazioa, komunikazioa, ikerketa eta ezagutza sortzea	
7. DIRULAGUNTZA ILDOA: Garapenerako lankidetzarako Ignacio Ellacuría saria	
ERAKUNDEA: eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia	
PARTIDA: 4-452-26/08	
ZUZKIDURA	15.500,00 €
Helburu dituen sektoreak	Irabazi asmorik gabeko erakundeak edo pertsona fisikoak
Emakida-prozedurak	Lehia bidezko norgehiagoka-araubideko deialdia da eLankidetzeta- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez bideratuko da. Ebazpen horretan, besteak beste, honako alderdi



	hauek zehaztuko dira: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordaintzeko epeak; g) justifikatzeko modua.
EKINTZA	Garapenerako lankidetzarako Ignacio Ellacuría saiaren deialdia kudeatzea
Adierazleak:	
- Saria emateko proposatutako pertsona edo erakunde kopurua	3
- Ignacio Ellacuría saria jaso dutenak	1
- Komunikabideetan egindako aipamen kopurua	45
- Saritutako pertsonari edo erakundeari egindako elkarrizketa kopurua	6
- Sentsibilizazio-bideoen bistaratze kopurua	6.000



KOMUNIKAZIO ETA BERRIKUNTZA SOZIALAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

2.- KOMUNIKAZIO ETA BERRIKUNTZA SOZIALAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK, 2025-2028 EKINTZA PLANARI LOTUTA, BERRIKUNTZA SOZIALAREN ETA 2030 AGENDAREN PLANAREN BARRUAN

2.1.- 2030 AGENDA BONUEN PROGRAMA

AURREKONTUA: 01 1122 34 452 21/0430

4. kapitulua; 2026: 400.000 € / FINANTZAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: 2026ko ediziorako deialdia egiten duen eta oinarri arautzaileak ezartzen dituen ebazpena

Helburua: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa 2030 Agendaren arloan

Jarduera: 2030 Agenda ezartzeko dibulgazio- eta/edo prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea

Adierazlea: Diruz lagundutako proiektu kopurua: 80

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren Idazkaritza Nagusia / Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: EAEko elkarten edo fundazioen erregistroan inskribatuta dauden eta jarduera-eremua EAEn duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2025-2028 JARDUERA PLANA

HELBURU ESTRATEGIKOA Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren 2025-2028 Plana

EKINTZA ILDOA: 2. ardatza: Garapen jasangarrirako helburuak lortzea 2030 Agendaren bidez

Jarduera: 2030 Agenda Bonuen Programa, dibulgazio- eta/edo prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea

Adierazlea: Diruz lagundutako proiektu kopurua: 80



KOORDINAZIOAREN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOEN IDAZKARITZA NAGUSIA

3.- KOORDINAZIOAREN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOEN IDAZKARITZA NAGUSIARI ATXIKITAKO EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOARI DAGOZKION DIRULAGUNTZA PROGRAMAK

<p>3.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, DIAGNOSTIKOAK, BERDINTASUN-PLANAK ETA TOKIKO GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO PROTOKOLOAK EGITEKO.</p>
<p>AURREKONTUA: 2026 2054701000 1.32230.42100 2019/001482: 375.000 €</p>
<p>Helburua: EAEko botere publikoen berdintasuneko jarduera bideratzeko jarraibide orokorrak ezartzea.</p> <p>Ekintza: Dirulaguntza-deialdia kudeatzea, udalek, kuadrillek eta mankomunitateek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egin ditzaten, berdintasunerako planak egin eta ebaluatu ditzaten edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloko tokiko protokoloak egin ditzaten.</p> <p>Adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 36. Udal, kuadrilla, mankomunitate eta bi udal edo gehiagoko elkarteen zenbat proiektuk jaso duten dirulaguntza. - 30. Zenbat udal txikik (5.000 biztanle baino gutxiagokoak) jaso duten dirulaguntza beren proiektuetarako.
<p>EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA</p>
<p>1. ARDATZA.- GOBERNU ONA</p>
<p>I-1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA</p>
<p>1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA</p> <p>I-1.2 Plangintza berria. Beren eskumenen esparruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan propioak egiten dituzten eta plan horiek hedatzeko beharrezko baliabideak ematen dituzten EAEko erakunde publiko berrien kopurua handitzea.</p> <p>Adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berdintasunerako plana indarrean duten toki-entitateen kopurua, udalerrien tamainaren arabera eta plana gauzatzeko moduaren arabera (banaka edo modu elkartuan). - Berdintasunerako plana duen udalerriren batean bizi den EAEko biztanleriaren ehuneko. - Plangintza egiteko prozesua hasia duten edo Europako Gutuna sinatuz bost urtean egiteko konpromisoa hartua duten toki-entitateen kopurua. <p>I-1.3 Berdintasunerako erakunde-plangintzaren kultura. <i>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legeak</i> ezarritako gutxieneko edukiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planetan txertatzen dituzten eta beren plangintza instituzionalaren kulturaren berdintasuna sendotzen duten EAEko administrazio publikoen kopurua handitzea.</p>



2. ILDOA. ANTOLAKETA-BALIABIDEAK: BERDINTASUNERAKO UNITATEAK

I-1.6 Berdintasunerako unitateak foru aldundietan eta udaletan. Beren egiturak gutxienez berdintasunerako entitate, organo edo administrazio-unitate bat egoteko egokitzen dituzten foru- eta toki-administrazioen kopurua handitzea, edo administrazio-egitura horiek langile espezializatu nahikoekin eta posizio organiko eta harreman funtzional egokiekin indartzea.

Adierazleak:

- Berdintasunerako unitatea eta teknikari espezializatu propioak dituzten toki-entitateen kopurua.
- Berdintasunean soilik eta lanaldi osoz lanean diharduten teknikariak dituzten udalen ehunekoak.

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoak, finantzaketa publikoa orotara hartuta

Helburu estrategikoa:			
Dirulaguntza-lerroa: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, DIAGNOSTIKOAK, BERDINTASUN-PLANAK ETA TOKIKO GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO PROTOKOLOAK EGITEKO.			
Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	2026		2027
Programa: 32230 EMAKUNDE	Zenbatekoa €	% 100	zenbatekoa €
AURREKONTUA: 4. kapitulua:	375.000	% 100	
Dirulaguntza-lerroa guztira:	375.000		

3.2. ENPRESA ETA ENTITATE PRIBATUENTZAKO DIRULAGUNTZAK, AHOLKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO.

AURREKONTUA: 2026 2054701000 1.32230.45001 2019/001483: 350.000 €

Helburua: ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOAREN ERALDAKETA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.

Ekintza: Aholkularitza, prestakuntza eta laguntza ekonomikoa emanez eta aitoren soziala eginez, bultza egitea ENPRESEK eta entitate pribatuek berdintasun-politikak gara ditzaten.

Adierazleak:

- Enpresei eta entitate pribatuei emandako dirulaguntzen kopurua, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko.
- Enpresa eta erakunde pribatuei emandako dirulaguntzen kopurua, berdintasun-planetan jasotako neurriak ezartzeko.


EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA
HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ARDATZA. GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA

ANTOLAKUNDEEN KULTURAN ETA PRAKTIKAN BERDINTASUNA GAUZATZEKO ETA EZARTZEKO ESKU-HARTZE ILDOAK ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK:
III-8. ANTOLAKUNDEEN KULTURAN ETA PRAKTIKAN BERDINTASUNA GAUZATZEA
17. ILDOA. ENPRESAK ETA ANTOLAKUNDEAK
III-8.1 Enpresetako berdintasun-planak

Berdintasun-planek Euskadiko enpresa eta antolakundeetan duten eragina handitzea, eta plan horiek egin daitezten sustatzea, legez behartuta ez dauden kasuetan.

III-8.2 Ordainsarien gardentasuna

Antolakunde publiko eta pribatuen gardentasuna sustatzea ordainsarien arloan (ordainsarien erregistro-liburuak, soldata- edo ordainsari-auditoretzak edo beste formula batzuk).

III-8.3 Kudeaketa aurreratua

Berdintasuna balio-elementu gisa zabaltzea, antolakunde eta enpresa guztien kudeaketa aurreratuari begira.

III-8.4 Lan-segurtasuna eta -osasuna

Prebentzioaren kudeaketan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea, lan-baldintza egokiak susta daitezten osasunean kalteak prebenitzeko eta, bereziki, enpresetan eta antolakundeetan sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta desagerrarazteko, bai eta laneko indarkeria mota guztietan eragiten duten genero-baldintzatzaileak ere.

Adierazleak:

- Emakunderen metodologiatik abiatuta berdintasun-diagnostikoak eta -planak egin dituzten enpresa eta entitate pribatuen kopuruaren bilakaera.
- Berdintasun-plana egiteko aholkularitza espezializatua jasotzen duten erakunde publikoen, gizarte-agenteen, enpresen eta entitate pribatuen kopuruaren bilakaera.

3 eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

Helburu estrategikoa:
Dirulaguntza-lerroa: ENPRESA ETA ENTITATE PRIBATUENTZAKO DIRULAGUNTZAK, AHOLKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO.



Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	2026		2027	
	Diru-zenbatekoa €	% 100	Zenbatekoa €	% 100
Egitaraua: 32230 EMAKUNDE				
4. kapitulua:	350.000	% 100		
7. kapitulua:	0.	0.		
Dirulaguntza-lerroa, guztira:	350.000			

3.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO IKERKETA-BEKAK

AURREKONTUA: 2026 2054701000 1.32230.45100 2026/000871: 69.999 € **2026:** 23.333 €. **2027ko konpromiso-kreditua:** 46.666,00 €

Helburua: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARLOKO ADITUEN EZAGUTZA SUSTATZEA, AZTERLANAREN, IKERKETAREN ETA PRESTAKUNTZAREN BIDEZ.

Ekintza: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko ikerlanetarako beken deialdia kudeatzea.

Adierazlea:

- Aurkeztutako eskabide kopuruaren bilakaera
- Emandako ikerketa-beken kopurua
- Emandako beken onuradun zuzen modura berdintasun-arloan prestatutako emakume eta gizonen ehunekoak

EA EKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA

1. ARDATZA - GOBERNU ONA

I-2 helburu estrategikoa: Administrazio-jardueran berdintasuna txertatzea.

1-2.1 Helburu espezifikoa. Estatistikak eta azterlanak: Pertsonen buruzko informazioaren bilketan, tratamenduan, analisisan eta zabalkundeetan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten estatistiken eta azterlanen ehunekoak handitzea.

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoak, finantzaketa publikoa orotara hartuta

Helburu estrategikoa:		
Dirulaguntza-lerroa: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO IKERKETA-BEKAK (HIRU). 2026: 23.333 €. 2027ko kreditu-konpromisoa: 46.666 €.		
Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	2026	2027



Programa: 32230 EMAKUNDE	Diru-zenbatekoa €	1/3	Diru-zenbatekoa €	2/3
4. kapitulua:	23.333		46.666	
Dirulaguntza-lerroa, guztira: 69.999.00	23.333		46.666	

3.4. IRABAZI-ASMORIK GABEKO EMAKUME-ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

AURREKONTUA: 2026 2054701000 1.32230.45200 2026/000872: 430.000 €. 2026: 322.500 €. 2027ko konpromiso-kreditua: 107.500 €

Helburua: 8. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA

Ekintza: 8.3. Emakume-federazio, -fundazio eta -elkarteei laguntzea jarduerak egin ditzaten berdintasuna lortzeko eta emakumeen autonomia sustatzeko eta emakumeen posizio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzeko, DIRULAGUNTZEN urteroko deialdia kudeatuz eta aholkatuz.

Adierazleak:

- 100-140 Emakume-elkarteei emandako dirulaguntza kopurua.
- 100-140 Irabazi-asmorik gabeko erakundeei emandako dirulaguntzen kopurua.
- 100-250 Emakume-elkarteei diruz lagundutako proiektu kopurua.
- 100-250 Irabazi-asmorik gabeko erakundeei diruz lagundutako proiektuen kopurua.
- Emakumeen elkarten % 35ek lortu dute dirulaguntza, elkarten gidaliburuan erregistratuta dauden emakumeen elkarte guztiak kontuan hartuta.

EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA

HELBURU ESTRATEGIKOA: IV. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEKO ETA ESPARRU GUZTIETAN EGITEN DITUZTEN EKARPENAK AITORTU ETA BALORATZEKO ESKU-HARTZE ILDOAK ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK

II-5. EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA ESPARRU GUZTIETAN EGITEN DITUZTEN EKARPENAK AITORTZEA ETA BALIOESTEA

11. ILDOA. PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA

II-5.1 Emakumeen ekarpenak. Paradigma feministatik abiatuta, emakumeen ekarpenak nabarmentzea eta balioestea giza garapen jasangarriari dagokionez.

II-5.2 Emakume-elkarteak

EAEko emakume-elkarteen mugimenduak emakumeen eskubideak eta herritartasuna defendatzen, eraikitzen eta finkatzen eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzen egiten duen lana indartzea eta sendotzea.

II-5.3 Ahalduentze-eskolak eta emakume-etxeak

Ahalduentze-eskolen eta emakume-etxeen lana sustatzea, bai eta ahalduentze indibiduala, kolektiboa eta soziala bultzatzen, praktikatzeko eta garatzen duten beste gune batzuen lana ere.



II-5.4 Antolakunde sozioekonomikoak eta politikoak

Gizarte-antolakundeetan, sindikatuetan, enpresetan, antolakunde kulturaletan eta politikoetan berdintasuna lortzeko konpromisoa hartzen duten emakumeen kopurua handitzea.

II-5.5 Aisialdian eta kulturaren parte hartzea. Emakumeek eta gizonak ikasteko baliabideetan eta programetan parte hartzen dutenean genero-arrakala murriztea, baita EAEn egiten diren aisialdi, arte, euskara, kultura eta jaietako jardueren guztietan ere.

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

Helburu estrategikoa:				
Dirulaguntza-lerroa: IRABAZI-ASMORIK GABEKO EMAKUME-ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK. 2026: 322.500 €. Konpromiso-kreditua: 2027: 107.500 €				
Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	2026		2027	
Programa: 32230 EMAKUNDE	Diru-zenbatekoa €	% 75	Diru-zenbatekoa €	% 25
4. kapitulua:	322.500	% 100	107.500	
7. kapitulua:	0	0	0	0
Dirulaguntza-lerroa, guztira: 430.000,00	322.500		107.500	

3.5. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO EKIMENAK SUSTATZEN DITUZTEN ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK.

AURREKONTUA: 2026 2054701000 1.32230.45200 2026/000873: 300.000 €. 2026: 225.000,00. 2027ko konpromiso-kreditua: 75.000,00.

Helburua: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA MURRIZTEN ETA PREBENTZIOA, DETEKZIOA ETA ARRETA HOBETZEN LAGUNTZEA.

Ekintza: DIRULAGUNTZA-deialdia kudeatzea, laguntzak emateko emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen duten antolakunde, elkarte eta fundazioei; baita indarkeria horren inguruko sentsibilizazio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituztenei ere.

Adierazlea:

Zenbat dirulaguntza eman zaizkien emakumeen aurkako indarkeriaren arloan diharduten elkartei eta erakundeei.

EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA

**HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ardatza, Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzak****4. ARDATZA.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK****IV-11. HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA INDARTZEA****25. Ierroa. IKERKETA ETA INFORMAZIOA**

IV-11.1 Ikerketaren espezializazioa. Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien kausetan, ezaugarrietan, identifikatzeko zailtasunetan eta ondorioetan sakonduko duten azterlanak sustatzea, ondorioak praktikan aplikatzea azpimarratuz.

26. Ildoa.- SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

IV-11-4. Estereotipoak eta aurreiritziak. Emakumeen gutxiagotasunaren eta mendekotasunaren ideian edo emakumeen eta gizonen rol estereotipatu batean oinarritutako aurreiritziak, ohiturak, tradizioak eta praktikak ezabatzen laguntzea.

IV-11.5. Hain agerikoak ez diren indarkeriak. Hain agerikoak ez diren emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpenei eta horien ondorioei buruzko sentsibilizazioa areagotzea (sexu-indarkeria, indarkeria bikarioa, indarkeria ekonomikoa, sexu-jazarpena eta sexuagatikoko jazarpena, indarkeria digitala eta sare sozialetan eta beste batzuk).

IV-11.6 Indarkeriazko portaerak. Emakumeen aurkako indarkeria matxista erabili duten edo jokabide sexista problematikoak dituzten adin txikikoek, nerabeek eta helduek beren portaera berragertzea prebenitzea

IV-12. – HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI EMATEN ZAION ERANTZUNA ESKU-HARTZEAREN ZENTROAN EMAKUMEEN ESKUBIDEAK ETA AHALDUNTZEA JARRIZ GAUZATZEN DELA BERMATZEA.**28. Ierroa. DETEKZIOA**

IV-12.1 Detekzio goiztiarra. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren detekzio goiztiarra sustatzea gizarte-, osasun-, hezkuntza-, lan-, polizia- eta justizia-arretako baliabide publikoetatik, hirugarren sektoreko erakunde espezializatuekin lankidetzan.

IV-12.2. Detekzio-mekanismoak. Biktimak edo biktima izan daitezkeen arrisku-egoerak (behartutako ezkontzak, emakumeen genitalen mutilazioa, emakumeen, nerabeen eta neskatoen sexu-salerosketa eta/edo -esplotazioa, eta sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena) antzemateko eta egoera horietan jarduteko tresnak eta protokoloak prestatzea.

29. linea. ARRETA INTEGRALA



IV-12.3.- Arreta-eredua. Bermatzea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren edozein adierazpenen biktima diren neskato, nerabe eta emakume guztiek lehentasunezko arreta, pertsonalizatua, doakoa, irisgarria, kalitatezkoa eta erreferentziatzko hizkuntzan jasotzen dutela sistema publikoko zerbitzu eta prestazio guztietatik, haien egoera pertsonala, soziala edo administratiboa edozein dela ere.

IV-12.4- Informazioa eta orientazioa. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima guztiek beren eskubideei eta dauden baliabideei buruzko informazio eskuragarria eta orientazio espezializatua izan dezaten ahalbidetzea.

IV-12.6- Indarkeriaren zuzeneko beste biktima batzuei arreta ematea. Laguntza eta arreta sozial eta psikologiko espezializatua indartzea haur, nerabe, senide eta emakumeen aurkako indarkeria matxista gauzatzen den ingurune baten eraginpean dauden beste pertsona batzuentzat.

30. linea. KONPONKETA

IV-12.15- Kaltearen erreparazio kolektiboa. Kaltea modu kolektiboan konpontzeko neurriak areagotzea eta dibertsifikatzea. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gaitzespen publikoa eta bizirik atera diren biktima guztien errekonozimendua barne.

IV-12.16- Lan komunitarioa. Biziraun dutenen berreskuratze- eta ahalduntze-prozesuetan komunitate-lana indartzea, bereziki berdintasunaren alde lan egiten duten emakume-elkartekin, talde feministekin, ahalduntze-eskolekin eta emakumeen etxeekin.

Adierazleak:

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan lan egiten duten elkarte eta erakundeei emandako dirulaguntzen kopurua.
- Behar bezala gauzatzen eta justifikatzen diren diruz lagundutako proiektuen kopurua.
- Dirulaguntzen erakunde onuradunen kopurua

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

Helburu estrategikoa:				
Dirulaguntza-lerroa: GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO EKIMENAK SUSTATZEN DITUZTEN ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK. 2026: 225.000 2026ko konpromiso-kreditua: 75.000,00€				
Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	2026		2027	
Egitaraua: 32230 EMAKUNDE	Zenbatekoa €	% 75	Zenbatekoa €	% 25
4. kapitulua:	225.000	% 75	75.000.	% 25
Dirulaguntza-lerroa guztira: 300.000.00	225.000		75.000.	


3.6. SEXU-INDARKERIAN ESKU HARTZEKO ADITU-DIPLOMA EGITEKO DIRULAGUNTZAK 2025-2026 IKASTURTEAN
AURREKONTUA: 2026 2054701000 1.32230.45100 2026/000540: 21.933,00 €. 2027ko konpromiso-kreditua: 7.311,00 €
9. helburua ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOAREN ERALDAKETA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.

9.3. ekintza. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ADITU-EZAGUTZA bultzatzea, azterlan eta dokumentazioaren bitartez eta genero-ikerketara eta -prestakuntzaren bitartez

Adierazlea: Urteko deialdia: eskaera-kopurua

EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA
HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA
4. ARDATZA.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA BULTZATZEA

25. lerroa. Ikerketa eta informazioa.
VL11.1 Ikerketaren espezializazioa

Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien kausetan, ezaugarrietan, identifikatzeko zailtasunetan eta ondorioetan sakontzen duten azterlanak egin daitezen sustatzea, ondorioen aplikazio praktikoan arreta jarritz

26. lerroa. Sentsibilizatzea eta prebenitzea
VL11.5. Indarkeria ez hain agerikoak

Areagotzea hain agerikoak ez diren emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpenei eta ondorioei buruzko sentsibilizazioa (sexu-indarkeria, indarkeria bikarioa, indarkeria ekonomikoa, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa eta beste batzuk)

27. lerroa. Gaikuntza
VL11.7. Administrazio publikoan diharduten profesionalak

Indarkeria matxistaren arloko prestakuntza ematea —nahi eta nahi ez eta etengabe— biktimak hautematearekin, artatzearekin eta babestearekin lotutako langile guztiei, haurren eta gazteen eremuko langileei barne, eta halaber indarkeria-politikak eta -programak diseinatzen dituztenei. (Genero-ikuspegia barne hartzen duen prestakuntza, interseksionala eta kulturartekoa.)

VL11.8. Operadore juridikoak eta judizialak



Epaitzako, fiskaltzako eta gainerako eragile juridikoetako langile emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko prestakuntza ematen laguntzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak arlo horretan dituen eskumenak kontuan hartuta.

VL11.9. Entitate pribatuetako profesionalak

Ziurtatzea EAEko administrazio publikoetan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan zerbitzu espezifikoak ematen dituzten entitate pribatuetako langileek arlo horretako prestakuntza espezializatua jasotzen dutela.

ADIERAZLEA: Ikasturtean zehar, sexu-indarkerian esku hartzeko adituaren diploma egiteko eskabide-kopurua.

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoak, finantzaketa publikoa orotara hartuta

Helburu estrategikoa:				
Dirulaguntza-lerroa: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALA EGITEKO DIRULAGUNTZAK 2026-2027 IKASTURTEAN. 2026: 29.244,00 €.				
Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	2026		2027	
Programa: 32230 EMAKUNDE	Diru-zenbatekoa €	% 75	Diru-zenbatekoa €	% 25
4. kapitulua:	21.933	% 75	7.311	% 25
Dirulaguntza-lerroa guztira: 29.244.00.	21.933		7.311	

3.7. BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUNDE SARIA.

AURREKONTUA: 2026 2054701000 1.32230.45100 2019/001484 15.000 €

Helburua: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA.

Emakumeek eta feminismoak zer ekarpen egiten duten ikusaraztea eta haiek bizitzako eremu guztietan parte har dezaten laguntzea.

Ekintza: Emakunde sariaren deialdia:

Adierazleak:



- 1 Emakunde sariaren deialdia 2026.

EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ESTRATEGIA 2030

2. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA ESPARRU GUZTIETAN EGITEN DITUZTEN EKARPENAK AITORTZEA ETA BALIOESTEA

11. esku-hartze lerroa: Parte-hartze soziala eta politikoa

12. esku-hartzea: Lidergo feministak eta emakumeen arteko aliantzak berdintasunari begira

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

Helburu estrategikoa:			
Dirulaguntza-lerroa: BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUNDE SARIA. 2025 aldia. 14.400 €.			
Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	2026		2027
Programa: 32230 EMAKUNDE	Diru-zenbatekoa €	% 100	Diru-zenbatekoa €
4. kapitulua:	15.000.	% 100	
7. kapitulua:	0	0	
Dirulaguntza-lerroa, guztira: 14.400,00	15.000		